


PEDRO BARRUTIA - SOR LUISA - XABIER MUNIBE

# TEATRO ZAARRA

GABONETAKO IKUSKIZUNA  
G A B O N - S A R I A K  
EL BORRACHO BURLADO



AUSPOA LIBURUTEGIA

# **TEATRO ZAARRA**

GABONETAKO IKUSKIZUNA

GABON-SARIAK

EL BORRACHO BURLADO

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**48**

---

### **COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**  
**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**  
**Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián**  
**(Guipúzcoa - España)**

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 240 pezeta      Atzerrian: 325 pezeta  
Ongilleak: 400      "      Ale bakarra: 30      "

PEDRO BARRUTIA, SOR LUISA, XABIER MUNIBE

# TEATRO ZAARRA

GABONETAKO IKUSKIZUNA  
GABON-SARIAK  
EL BORRACHO BURLADO

AUSPOA LIBURUTEGIA

1965

*Depósito Legal S. S. 656/65*  
*Número de Registro 5830/65*

---

IMPRESO EN "GRAFICAS IZARRA" - PEÑA Y GOÑI, 13 - TEL. 17331

SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

## ARKIBIDEA

Itzaurrea .....	9
<b>Pedro Barrutia:</b>	
Gabonetako Ikuskizuna (Acto pa- ra la Noche Buena) (Mondragoe'n, 1759 baño len) .....	15
<b>Sor Luisa:</b>	
Gabon-sariak (Azkoitia'n, 1762) ...	47
<b>Xabier Munibe:</b>	
"El Borracho burlado" (Bergara'n, 1764) .....	79

## ITZAURRE MODUZ

Emen dijoazkitzu, irakurle, gure teatro zati zarrenak. Zuberoako pastoralak alde batera utzita, ezpaitakit nik zarragoak ala berriagoak diran, baña guztia dan bezela, beste kategoria batekoak baitira, orain dakigunez ezta euskeraz eskribitu au baño teatro zarragorik.

Iru komedia dira, eta epoka berekoak, berrienak igaz bete zituan berreun urte. Ordutik onara pizkat urdindu zaio illea gure aitonatxori, ezta?

Orain artean komedia auk, mundu guztiak gauza solteak bezela kontsideratu ditu, ezeekin lokarririk gabekoak. Gaur egunean iru ezagutzen ditugu, emen publikatzen ditugunak. Baña euskal teatroa estudiatu dutenak, bi bakarrik ezagutzen zituzten: Sor Luisarena eta Xabier Muniberena. Bestea, Barrutiarena, Azkuek *Euskalzale* errebistan (1897) argitaratu bazuan ere, etzan ezaguna. Teatroaren aldetik, nik Bilboko euskaltzaleen hiltzarrean aren gañean itzaldi bat eman nuan arte, etzuan iñork estudiatu.

Itzaldi au *Euskera* errebistan dago publikaturik. Komedia orren istoriaren gañean, igazko euskaltzaleen biltzarrean eman nuan Arantzatzun itzaldi bat. *Euskera* errebistan agertuko da au ere.

Ordutik onara, leku ederra artu du Barrutiak gure literaturaren istorian. Mitxelena jaunak eta Villasante frantziskanoak aipamen berezia egiten diote aien liburuetan. Beste batek, Aita Lino Akesolo karmelidak, eztio inportantzia aundirik ematen, baña ala ere, ezta aren kontra ausartzen, nundik dabillen seguru ezpalego bezela.

Orain, iru komediok bildu ditugu batera liburu onetan. Irurak batera argitaraturik ikusirik, lengo gauza solteak gorputz bat artzen dute, eta orain gure teatro zarraren gañean itzegin dezakegu. Baña Mitxelenak galdetzen du: "Barrutia aparteko kaso bat izan zan, edo aren mendean komedigille geiago egon zan?" Badirudi Mitxelenak etzuala ez Sor Luisarengan ez Xabier Muniberengan pentsatu. Baña Barrutia beste bi oiekin juntatzen badegu, bai, len esan det euskal teatro zar baten gañean itzegin dezakegula.

Pedro Ignazio Barrutia eta Basagoitia, ongi dakigun bezela, eskribaua izan zan. Azkuek eta Gerrak gure komediaren egillea



izan zala esaten digute, baña ori nundik atera zuten, ez.

Polizi-nobela franko irakurri det, eta misterioak asko maitatzen ditut. Bateonbateg, misteriorik eztagoan lekuan, bat sortu nai detala esango du; ala izango da, baña nik duda aundiak daduzkat, Barrutiak komedia au eskribitu zuala.

Azkuek eta Gerrak ala esaten digute; baña testigo seguruak ote dira? Aien testigantza ezta aurren eskukoa. Eskuz-idatzi bat aurkitu zuten, eta firma Barrutiarena izan zan. Ori da gure euskalari jakintsu bi oien testigantza bakarra. Aiek Barrutiaren aitasuna ontzat eman zuten, eta aieri segiturik, guztiok beste orrenbeste esan degu. Nik aurrena.

Baña asunto onen gañean pentsatuz, zehaztasun apur batzuetaz konturatu naiz:

Barrutiaren testua txarki fijaturik dago. Gauza batzuk daude entenitzen ere ez tiranak. *Jokudi atea*. Zer da *jokudi* ori? Gañera itz batzuk nastatu egiten dira. Nundik dator naste ori?

Komedia onetan, gauza oso nabarmen bat dago. Artisten izenak askotan aipatzen dira. Baña egillearen izenik komediaren arian ez tator. Zergatik au? Aingeruaren izena ba-

dakigu, baita barregarriarena ere, eta gañerako artistena. Baña Barrutiak ezti bere buruari aipamenik egiten. Bertan erori gabe, nola sufritu zuan tentaldi ori?

Barrutia eskribaua zan. Denpora aretan koplariak analfabetoak izango ziran.

Bertsoak oso errikoiak dira, gizon jakintsu baten eskurik ezta bertatik azaltzen.

Sor Luisak bere komediaren itzaurrean bere lanean orduko koplari batek lagundu ziola esaten digu, eta izena aipatu ere: *Martin beltz*.

Barrutiaren barregarria bi izenekin agertzen zaigu: *Txarles Tripazabal* eta *Matxi beltz Ardantza*, Bergarako dantzari koplaria. Matxi eta Martin izen berdiñak dirala hadakigu.

Zehaztasun guzti auk kontsideraturik, Perry Mason bat konklusio batera jaditsiko litzake. Ni ez naiz detektibea, baña poliziazterketara azaltzen det nire burua, eta ona emen zertara etorri naizan:

Posible izango litzake Sor Luisak aipatzen duan koplaria eta Barrutiaren komedian agertzen zaiguna, persona bakar bat izatea. Gañera, Mondragoeko gabonetan emateko komedia bat asmatu zuan, baña eskribitzen etzekian ezkeru, bertako eskribauak eskri-

bitu zion. Eskribauak firmarekin ematen zuten fedea, eta Barrutiak, beraz, kopiaren azpian jarri zuan bere izena. Gerrak, eun eta geiago urteren buruan kopia ori aurkitu zuan, Azkueri bigaldu zion, eta misterio-zaleak etziran ezkerero, Barrutia eskribauaz gañera eskritorea ere zala, dudatzeko arrazoirik etzuten billatu.

Onekin eztet euskalari jakintsu oien memoria ofenditu nai. Baña nik asmatu detan polizi-misterio oni soluzio bat aurkitu bear izan nion.

Liburu au inprentarako preparatzen nengoalarik, errebista eta paper zarrak maniatu bear izan ditut. Barrutiaren lana *Euskalzale* errebistan (1897) argitaratu zan. Sor Luisarena *Euskalerria* errebistan (XX, 1889). Muniberena *Euskal Estudiotako Errebistan* (1907-1909). Ortik kopiatu ditut.

Baña beste gauza asko ere erabilli ditut. Aien artean liburuxka bat, 1927 urtean Euskal Akademiak atera zuana, *Bigarren Euskal Egunetako Itzaldiak* izenekoa, Nafarroako Donezteben egin ziranen bilduma. Bertan Aita Joakin Aspiatzu jesuitak eman zuana ere badator. Gure literatura zarraren notizia llaburrak ematen dizkigu. Sor Luisaren operetaren gañean berri luzea ematen du. Xabier Muniberen lanari eztio merezimentu

aundirik eskeintzen. Barrutia eztu aipatzen ere. Baña laugarren komedia bat aipatzen da. Komedia orren berririk ezta beste inun aurkitzen. Dio eskuz egindako orijinala zedukala, eta laster publikatuko zuala. Publikatu al zuan? Eztakigu. Errebista inportanteetan ez, beintzat. Baña orduan jesuitek euskal errebista bat argitaratzen zuten, *Jesusen Biotzaren Deia* izeneko. An publikatu ote zan? Guk eztegu errebista inportanteetan ez, beintzat. Uste det komedia orren orijinala Jesusen Konpainiaren jabetzakoa izango dala orain. Euskaltzaleon jakin-goseari eskeintzen baldin badiote, zerbitzu aundia errendatuko diote jesuitek euskerari.

Barrutiaren lanak erderazko titulua zekarren: *Acto para la Noche Buena*, baña euskal jentartera ausartzeko, etzait ori izen egokia iruditu.

*Gabriel Aresti eta Segurola*  
Llaudion

**PEDRO IGNAZIO DE BARRUTIA Y BASAGOITIA**

**(1682 - 1759)**

**GABONETAKO IKUSKIZUNA**

**(ACTO PARA LA NOCHE BUENA)**

Lenengo argitaraldia: "Euskalzale" errebista, 1897.

Bigarren argitaraldia: "Euskera" errebista, 1960.

Irugarren argitaraldia: Auspoa 48, 1965.

## NORTZUK AGERTUKO DIREN

Birjina Maria.  
San Josepe.  
Angerua  
Zesarren Ministrua.  
Txarles, *Gracioso*.  
Txanbolin.  
Tomas, *mesonero*.  
*Chato*, ostalariaren mutilla.  
Luzifer, deabrua  
Asmodeo,       "  
Berzebu,       "  
Mari Gabon.  
Beltran, artzaia.  
Lorenzo, artzaia.  
Gabriel, artzaia.  
Tomas, artzaia.  
Aritxabal, artzaia, zezen-toreadorea.  
Aseginzoro.  
Errege Magoak.

Cantan dentro.

La Divina Majestad  
Ha querido que este día  
Se despose con María  
Joseph, por su gran bondad.

Salen S. José y la Virgen.

*S. J.*—Benturosoa milla bider ni,  
Zerren juntadu naizazun zeuri;  
Milla grazia ematen deutsal  
Au ordenadu dauen Jaunari.

*B.*—Ni milla bider benturosea,  
Josefe, Dabiden semea,  
Zerren, zeruak ala nairik,  
Naizan zeure esposea.

*S. J.*—Ainbat bentura, nundik nik, nundi?

Responde de dentro el ángel.

*Ang.*—Doa guztia dator zeruti.

Pónese de rodillas.

*S. J.*—Kunplitu bidi sekula beti.  
Ordenadua zeru altuti.

*B.*—Nundik nik, nundi, ainbat bentura?

*Ang.*—Jaun Zerukoak ala dau gura.



De rodillas.

*B.*—Kunplitu bedi beti sekula,  
Zeru altuak ordenadua.

Cantan dentro.

Esta Virgen celestial,  
De San José digna esposa,  
Será con Dios piadosa  
A remediar nuestro mal.

Sale la Virgen.

*B.*—Trinidad altuko Seme bakarra,  
Arren, adi ezazu gure negarra.  
Zatoz, Orienteko eguzki klarua,  
Akordadu bekizu Adan itxua.  
Adanek egiñ eban itxurik bekatu;  
Aren da gure kulpak damu ditugu.  
Merezidu ez arren parkazioa,  
Bakigu zen zarana piadosoa.  
Profeta sagraduak eskribidu eben,  
Nola zan Jaun andi bat jaioko Be-  
[lenen;  
Bera zala izango Salbadorea,  
Desegindu egian gure kulpea.  
Dontzella bategainik jaioko zala.  
Nor izango ote dau Jaun onek Ama?

Sale el ángel.

*Ang.*—Abe mila bider, Birjiña Maria,  
Ni naiz zeru altuko mandataria.  
Zerureanik dakart enbajadea,  
Zeu zarala izango Jaunaren Amea.

*B.*—Ezagutu ezpadot sekula gizonik,  
Nola jaioko da Jaun ori neugainik?

*Ang.*—Ez dozu zer ifini batere dudarik;  
Ezta zeruarentzat inposiblerik.  
Inposibleak eurak, aditu nagizu,  
“Egin bite” esanak egiten ditu.

Vase.

*B.*—Zeu zara ene Jauna; esklabea naiz  
[ni;  
Zeure borondatea kunplitu bidi.

Vase. Cantan dentro.

Joseph, con resignación  
Pon los ojos en el cielo,  
Que a sus siervos da consuelo  
En la mayor aflicción.

Sale Sn. José.

*S. J.*—Izorra sentitzen dot neure esposea.  
Aditu ezin dot nik zer dan kausia.  
Donzella bat ain garbia,  
Nola zaran zu, Maria,  
Nola da posible?  
Ai, ai, ai ene!  
Ez dot nik merezitzen zeugaz gel-  
[ditzea.  
Zer egingo neuke, ai, ene tristea?  
Fuertza jat juatia,  
Inposible egotea  
zeugainik ausente.  
Ai, ai, ai ene!

Echase a dormir. Aparece el ángel.

*Ang.*—Joseph, itzi bekio pensamentu orri;  
Biotzeko penea desterra bidi.  
Zure esposeagan ezta posible  
Iñok edirotzea kulparik batere.  
Labur da gizonaren adimentua  
Aditzeko Jaunaren ordenadua.  
Espiritu Santuak keriza eginik,  
Jesusa jaioko da Birjinieagainik.

Vase.

Edicto de César. Salen el Ministro y el  
Gracioso.

*Min.*—Mundu guztiko Enperadore  
Zesar Augusto andiak  
Ala nairik, alista bitez  
Aren basallo guztiak.  
Gizon bakoitzak pagatu begi  
Tributua ta zensoa.

*Grac.*—Diruak ez atara, ze ori  
Eztok egingo beloa.  
Ene bolsea arina beti,  
Urrin neuganik dirua.  
Nik, neuk ere, dirua baneu,  
Ederra neuke mosua.

*Min.*—Txakurrak eurak egiten dabe  
Dantza diruagaiti.

*Grac.*—Gure Mundragoen pagatzen dogu  
Dirua dantzeagaiti!  
Auxe dok bizitza modu!

Neska zarrok dantza egin, da  
Mutilok dirua pagadu!  
Ibini bidi, Alkate Jauna,  
Ibini bidi legea,  
Mutilak libre, neskatxak eurak  
Paga dezeela dantzea!

*Min.*—Zuk emoniko sententzi orrek  
Txapadamente dirudi.  
Zu legezko abogadurik  
Ez da sekula ikusi.

*Grac.*—Zerrebeta jo bidi,  
Emon daiztan salto bi.

*Txan.*—Zer soñu?

*Grac.*—Gura doana jo egik, eze  
Guztirako nok agudu.

Danza el Gracioso un villano.

Salen Sn. José y la Virgen.

*S. J.*—Goazen, Maria, goazen Belenera,  
Zesari tributua an pagatzera.

*B.*—Borondate askogaz jarten naiz bi-  
[dean.

Pozik etorriko naiz zure atzean.

*S. J.*—Emeti Belenera dago hide luzea.  
Zure trabajua da ene penea.

*B.*—Ordenadurik dago gu ara juatea.  
Kunplitu bidi Jaunaren borondatea.

Vase.

Cantan dentro.

A Belén caminan  
Josef y María;  
Jesús va encubierto;  
El es quien los guía.  
Seguid sus pisadas,  
Seguid, alma mía;  
Errar no es posible  
Con tan cierta guía.

S. J.—Jaunari demaguzan graziak, Maria.  
Orra nun agertu dan Belengo uria.

B.—Eperik ezta, Josef, kunplitzen ezta-  
[nik:

Laster jaioko da Jesusa niganik.  
Kontenturik biotz au kabidu ezin  
[jat:

Neuk sentitzen dot paradisu bat.

S. J.—Pentsamentuan nator, zerren dan be-  
[randu,

Izango ote dogun Belenen ostatu.

B.—Ostaturik ezpada Belengo errian,  
Zeruko Jauna dago leku guztian.  
Ordua etorri da, esposo maitea,  
Sein onek jaio bear dau. Jokudi  
[atea.

Tocan a la puerta.

Cantan dentro.

Llamando está San José  
A las puertas de un mesón,

Con la Reina de los cielos,  
Virgen y Madre de Dios.

Dentro el mesonero y el criado.

Tomas da voces.

Mutill, aditzen dok, mutill?

*Chat.*—Beti arran eginik,  
Naduka adikaturik.  
Erri bateko kanpaetzat  
Eztau bere parerik.

*Tom.*—Ez al nok aditu?  
Zori gaiztoan artu indudan  
Neure etxean kriadu.

*Chat.*—Lo egiten izkuzu;  
Goiza etorri etxazu.  
Puntu onetan oera naiz da  
Enaiz ondo berotu.

*Tom.*—Ara: norbait da atean.

*Chat.*—Gu ondo gautza oean.

*Tom.*—Mutil nagia, jagi adi.

*Chat.*—Jagi nendi, al banegi.

*Tom.*—Arraka!

Gura al dok ibili nadin  
Makilaka ta agaka?

*Chat.*—Ar zaraz beti gure nagusi?  
Ala menean ezteuz itxi!  
Olloa nola iskintokian,  
Gizentzen jaku lotsagerian.

*Tom.*—Aguro!

Ondo ikasteko bear neuskio

Zanka-zanak ebagi.  
Bera datzan oearekin  
Su emon prestu ezari.

*Chat.*—Eso sí!

Orrelako orazinoak  
Zure aoan ugari.

*Tom.*—Txato, mutil lotsagabe,  
Desbergonzadu perroa,  
Jagi banadi, itxiko deustat  
Moltsuarekin aoa.  
Aik gora, mutill!

*Chat.*—Flema oberik ekusi dozu  
Urtetzen daben zerekin.

*S. J.*—Ostatu eske gabiltz, ez arren beatu,  
Zeuroen trabajua pagatuko jazu.

*Chat.*—Zuentzat ostaturik eztago emen.  
Akomoda zaitez bazterren baten.

*S. J.*—Belenen ostaturik guretzat ezpada,  
Arren, erakuskuzu nun irago gaua.

*Chat.*—Or dago portale bat uriaz ateti.  
Izkuzu lo egiten, zoaz emeti.

Vase.

*B.*—Besterik ezin hada, guazen bada ara;  
Jaungoikoa dan lekuan ezer ezta  
[falta.

Entran en el portal.

Tocan algún instrumento y cantan dentro.  
Bekatariak alegra bitez,  
Alegra bidi zerua.

Portale baten jaiorik dago  
 Mesias prometidua.  
 Zeruarentzat gloria dakar,  
 Gizonarentzat bakea,  
 Bakea bere ez nola nai,  
 Ondasun askoz betea.  
 Amorioak dakar zerutik  
 Jesusa zuen artera,  
 Bekatuaren poderiotik  
 Guztiok ataratzera.  
 Bekatariak, ez desetxadu  
 Jaun onen amorioa;  
 Mundureanik apartaduta  
 Agan ibinzu gogoa.  
 Asko da lorik, esnaa zaitez,  
 Biotz garbi erazazuz;  
 Biotz garbira etorriko da,  
 An izatera kontentuz.

Sale el demonio echando fuego.

*Luzif.*—Izanik infernuko prinzipe andia,  
 Demonio guztien agintaria,  
 Ni orain indar бага, ni orain lotu-  
 [rik,  
 Sein bat bazter baten jaiogaitik?  
 Luzifer altibo, soberbioa,  
 Nun da antxiñako ire brioa?  
 Pena garratz, rabia, tormentu an-  
 [diak,  
 Abrasatzen deust errai guztiak.



Iregi bidi lurra, iruntsi nagi.  
 Sekula ainbat pena eztot eugi.  
 Ene infernua dago Belenen.  
 Enaiz atrebitzen gaizki esaten.  
 Señora virtuosa, zer esango dot?  
 Gaizki nai arren esan ezin dot.  
 Señora virtuosa, ai, ene tristea!  
 Andra guztien artean kulpa bagea!  
 Dontzella daguala, Semea egin dau,  
 Nik ezin aditu dot misterio au.  
 An dago agura bat, ez mundukua,  
 Gura nukean baño santuagua.  
 Ai, ni milla bider desdixadua!  
 Nola ausi deusten neure burua!  
 Orain portalean jaio dan orri,  
 Auzia emango deusat sekula beti.  
 Gizonak ene kontra ainbat podere?  
 Gizona izatea ez da posible!  
 Nun aiz, Asmodeo? Nun aiz, Ber-  
 [zebu?  
 Okasino onetan fabore indazu!  
 Fabore, infernua, fabore, fabore!  
 Lagun izango dogu Erodes errege!  
 Cierra, cierra! Guerra, guerra!

Hacen ruidu: salen Asmodeo y Berzebu.

*Asm.*—Luzifer andi balerosoa,  
 Ez adila turbadu.  
 Ire fabore etorri gaituk  
 Asmodeo ta Berzebu.

Baal, Belial, Lebiatan ta  
Beste gañeko jentea,  
Atzean dituk dakardela  
Ire estandartea.  
Publika bidi gerra eruela,  
Gerra mundu guztiti  
Emon bekio, ala da kunpli,  
Jaio dan infante oni.

*Ber.*—Gure kontra etorri da,  
Benturaz bere kostuan;  
Padezidu bearko ditu  
Mila trabaju munduan.  
Al dagidana egingo dot nik  
Nire podere guztian,  
Krutze baten isetearren  
Jerusalengo mendian.

Sale el Gracioso.

*Grac.*—Lian lan bere, lian lan bere,  
Gabaren alegerea!  
Lian lan bere, gauza ona dok  
Buskantz ondo betea!  
Lian lan bere, ementxen datoz  
Amar libra okela,  
Lian lan bere, birao gura  
Eztala ene sabela!  
Lian lan bere, bai nik ekarri  
Presentean neurekin,  
Guzurrik batere asmatu baga,  
Zazpi otxaba txakolin!

Afaritako etzala falta  
Arrain zabala salsatan;  
Salsatako zeruak jakin  
Zeinbat intxaur jo ziran!  
Lian lan bere, lian lan bere,  
Ondo nago kontuan,  
Salsa jaiten iru motrallu  
Pedazadu nituan.

Lian lan bere, iruntsi ditut  
Eun da ainbat gaztaña;  
Egia da ta artu zituen  
Lagun bik garau bana.  
Sagarrak bere etziran falta,  
Mispil ustelak abondo;  
Lian lan bere, edirotzen da  
Ene tripea gaur ondo.  
Ogiak bere, baziran iru,  
Bakotxa lau librakoa;  
Lian lan bere etzegoala  
geldirik orduan aoa.  
Lian lan bere, etxetik nator  
Egiten paseadea,  
Lian lan bere, dijeritzeko  
Neure afari puskea.  
Lian lan bere, lian lan bere...

Mira a los demonios, túrbase y dice:  
Arako ura, zer jente?  
Lotsa baño bildurrago nok.  
Ikaratu najok.

Korputz guztia ikara jarri.  
Auxe dok bide obia:  
Ene kontra baldin badatoz,  
Orpoak erakustia.  
Berna gogorak mila zemai  
Neuk egitea kunpli da;  
Menturaz neu legez ikaratuta  
Igesi juango dira.

*Belt.*—Nor da ura?

*Asm.*—Axe dok Txarles Tripazabal,  
Mendietako ongura.

*Ber.*—Artu daigun ingura,  
Gaurko gauaz akorda didin  
Para siempre sekula.  
Camaradas, engañadurik  
Ezpadago begia,  
Au dok mutil baltz Beragarako  
Dantzari koplaria.  
Mundu guztia klopatzeko  
Etxaio falta grazia.  
Probadu begi nolakoa dan  
Infernuko ogia.  
Auxe dok, auxe, gure morroe,  
Alper kazadorea.  
Kazara doean orduan beti  
Aldamenean botea.  
Ak ari sarri emon oi jeutsak  
Apa gozo dultzea.

*Asm.*—Adi ezak, Berzebu,  
Onen bizitza modu.

Goizean goizean bearko oi jok  
Entresilua kapazu.  
Mantenitzeko tripea da  
Guztiz dilijentea;  
Ardan truke saldu jok egun  
Emaztearen moldea.  
Au dok, fiesta zaleak.  
Gure adiskidea!  
Guganik orain eroan begi  
Merezidu dauen doea.  
Da infernuko legea,  
Sekula autsi bagea,  
Obeto serbitzen gaituanari  
Aumentatzea penea.

*Grac.*—Ordu gaiztoan ken zaitetz orrik,  
Eztabere ta fedea,  
Jakin bai jakin, nolakoa dan  
Ene ukabil parea.

*Ber.*—¿Quién eres tú?

*Grac.*—Orren mesedi ori serbitzeko  
ni naiz Jauna Matxi Frisa.

*Asm.*—Zer gizon?

*Grac.*—Tontorronton!

*Todos.*—Emon, emon,  
Tiene lindo barrigón.  
Aporréanle.

*Grac.*—Auxe dala, Zeledon,  
Artu bai ta ez emon.  
Mari Gabon, nun aiz,  
Ene Mari Gabon?

Neure azurrak pedazatuta  
Emeti jagi ezin non.

Asuma Mari Gabon a la ventana.

*M. G.*—Edan eitegi adinon.  
Ondatu najok ire tripa  
Traidore gextoak.  
Or konpon!

*Grac.*—Mari Gabontxo enea,  
Biotzeko puskea,  
Orienteko perlea:  
Nun da zure legea?  
Nun zure karidatea?

*M. G.*—Berbok eder aoan,  
Orapiloa kolkoan.  
Leen legez egongo enaiz  
Zure ukaondoan.

*Grac.*—Etxeko andra maitea,  
Eukidazu piedatea!

*M. G.*—Zurekin beti gerran baño,  
Obe dot zu baga bakea.

*Grac.*—Orrela tratatzen nozu?

*M. G.*—Bestelako tratamenturik  
Merezitzen ez dozu.

*Grac.*—Guarda, jagi banadi!

*M. G.*—Zemai Mari Gaboni?  
Mari Gaboni zemai?

Baja y dice:

Orain jaukat neure aldi.  
Galdu nok eta gal adi.

Aporrea a su marido; vase.

*Grac.*—Bardin osa banadi,  
Laster da ondo egingo deusat  
Pagu erreala beroni.  
Adi ezazu, mundua,  
Ze modutan emaiten dauen  
Emazte onak pagua.

Asona Mari Gabon y dice:

*M. G.*—Munduak aditu begi:  
Senar gaizak emazte ona  
Esperadu ezpegi!

Vase.

*Grac.*—Ene tripa tristea!  
Zori gaiztoan ikusi neban  
Araisteko jentea!

Salen los pastores cantando “Lan beres”.

*Beltr.*—Txarles gerea ordirik datza;  
Aik gora laster, Matxi Ardantza!

Levántase el Gracioso y da saltos.

*Grac.*—Lian lan bere, gauaren ona,  
Jaunak emona!  
Beste bat nago puntuti ona!

*Lor.*—Esak, mutil!

Modu orretan zek arabil?

*Grac.*—Iru deabruk, erruki baga,  
Lasta-sakuba bainintzan ala,  
Kendu jeuste zaiak;

Barberu baga osatu jataz  
Neure azur ausiak.

*Gabr.*—Matasanoen eskuan,  
Osasuna dabena bere  
Jarten dok peliburuan.

Aparece el ángel y canta "Gloria in excelsis Deo". Túrbanse los pastores y dicen en su orden:

*Lor.*—Ene lagunak, zer ete dogu  
Arako misterioa?  
Txoriak legez egoak dakarz,  
Dultzea bere aoa.  
Zori onian juntatu gara  
Guztiok leku batera.  
Angeruzko exerzituak  
Jatsi dira lurrera.

*Tom.*—Ala sarde, eztok agertu  
Ene denpora guztian  
Onelako gizon ederrik  
Gure Belengo mendian.  
Agana beti begira dago  
Kontentu askoz begia,  
Beragaterren trukadu nei  
Pozik mundu guztia.

*Grac.*—Aserik orain franko dago  
Onela esanagaitik.  
Kaltxapotak eman leizke  
Bokadu on bategaiti.

*Beltr.*—Angerua dok, ez dok gizona!  
Aren abegi ederrak



Duda baga bentzitzen ditu  
Kanpoetako eperrak.  
Kantore asko arkitzen dira  
Jerusalengo tenploan;  
Musika dulzeagoa dago  
Angeru onen agoan.

*Grac.*—Beltranikotxo, eleizako  
Esaminadorea,  
No se hizo para los asnos  
Ezti makatz dultzea.

*Aritx.*—Berau ikusi nuen ezkerro  
Da ene pentsamentua,  
Zeruetako gloriagaiti  
Iritzeari mundua.  
Desiertura juango naiz ni  
Egiten penitentzia,  
Ene jana ta ene edana,  
Urarekin ogia.

*Grac.*—Gure mutil au izango jaku  
Santu guztiz andia,  
Alboan falta dakionian  
Kuartilloko ontzia.  
Aritxabaltxo gurea,  
Zezen-toreadorea,  
Penitentzia egite ori  
Ez dok intxaur-saltsea.

*Chat.*—Anteajoak ibini eizke,  
Txarlesikotxo laztana;  
Esan egidak zer misterio  
Etorri jakun geugana.

*Gabr.*—Aren aoko berba dulzea  
Aditu neban puntuan,  
Sentidu neban argi andi bat  
Neure biotz barruan.  
Artzain ignorantea nintzan,  
Biurtu naiz sabio;  
Ene ustez, mundu guztiak  
Eztau zuri bat balio.

*Grac.*—Parabolok esan franko  
Gabrieliko gureak;  
Biar goizeko beste alderuntz  
Itzuliko jok aizeak.  
Beistegiko Gabriel,  
Kañaberan kaskabel,  
Lindo mozo despatxatzeko  
De vino blanco un pichel.  
Sekula iñok eztau ikusi  
Onereango konturik.  
Ezta posible eztaodela  
Ene lagunak ordirik.  
Ez al dezu dijozeridu  
Arratsaldeko salsea?  
Txakolin orrek turbadu deutsu  
Begietako bistera?  
Sermonadore barri orri  
Egon naizako begira;  
Ori da "Buru-motz", Oñatiko  
Peru Jainkoen mutila.  
Kasi buruan ilerik etxok,  
Diranak ere bakarrak.

Mosu linduan argitzen dira  
Begi eder gorri bi;  
Goizean bein ematen dabe  
Ezti makatza ugari.  
Gidalbi-gidal gozoagorik  
Eztira jamas ikusi;  
Badirudie izan dirala  
Durangon errementari.  
Arpegiko narru ederrak  
Pergaminoa dirudi,  
Pergaminoa bustita gero  
Erakutsia suari.  
Berba baten esan dagidan  
Nolakoa dan mutila,  
Egin eginik aren gorputza  
Natibitate subila,  
Izan etzidin gauza guztian  
Mutil au desgraziadu,  
Zerren dauen kantu ederra  
Egingo dogu angeru.  
Milla grazia emon eutsan  
Jaun zerukoak aoan;  
Milla maña on erakusten dau  
Bere ofizioan.  
Gure burloi itxita, orain  
Biurtu gaitezen atzera.  
Zertara jakin gura genduke  
Zatozen gure artera.

*Gabr.*—Bateti ene biotza poz da,  
Besteti dabil ikara.

Ezkutaria, konbeni bada,  
Esan egizu: Nor zara?

*Angel.*—Ni naiz zeruetako  
Jaunaren angerua,  
Dakardena zeruti  
Barri deseada.  
Atsegin ar ezazu,  
Belengo pastoreak,  
Iditen asi dira  
Zeruko portaleak.  
Donzella bateganik  
Jaio dan infanteak  
Zeruko Jaunarekin  
Egin ditu bakeak.  
Donzella santa onek  
Izena dau Maria.  
Erakutsiko deutsu  
Jaio dan eguzkia.  
Belengo portalean,  
Baturik oxalean,  
Kumearen ordeaz,  
Daratza pesebrean.  
Sortu zan infante au  
Amaren sabelean,  
Adanen bekatuti  
Ezebela arean.  
Berau da Jangoikoa.  
Ama dau Birjiñea;  
Ori da marabilla  
Andi pare bagea.

Josephe ditxosoa,  
Amaren esposoa,  
Ezta Jesusen aita,  
Baña bai ordekoa.  
Aberre mutu biren  
Erdian jaio dana,  
Bera adoratzer  
Zeruti jatsi gara.  
Iru Errege Mago  
Izar baten atzean  
Bisitatzera datoz  
Dromedario gainean.  
Desegingo ditu  
Jaun onen geraziak  
Bekatu oraingaino  
Egini guztiak.  
Da gure Infantea  
Biotz garbi zalea,  
Apareja bekio  
Esse natto bagea.  
Vanse todos.

Dice la Virgen:

*B.*—Adoratzen zaitut  
Jangoikoa legez,  
Laztan egiten deusut  
Semeari legez.

*S. J.*—Zeruak eta lurak  
Zeureak izanik,  
Nola zatoz mundura

Orren billoxik?  
Zer da ori, Jauna:  
Portale baten,  
Guri umildadea  
Erakusterren?  
Nola konfunditzen  
Ez da mundua?  
Admiraturik dago  
Zeru altua!

*B.*—Exi, ene laztantxo, exi,  
Negar-tanta bat da asko,  
Oraingañiko kulpa egiañak  
Guztiak desegintzeko.  
Amorioak iritzi zaituz  
Zerureanik lurrera,  
Adanen ume desterraduak  
Zeugana konbertitzera.  
Majestatea bateti dakust,  
Besteti umildadea;  
Jangoikoa ta gizona zara,  
Milagro pare bagea!  
Zeureak dira gure biotzak,  
Mundu guztia zeurea;  
Erakuskuzu, Jaun zerukoa,  
Zarala gure jabea.  
Exi, ene laztantxo, exi,...

Entran los pastores a adorar.

*Gabr.*—Lizentzia iguzu,  
Birjina Santea,

Adoradu daigun  
Zeure Infantea.  
Zeruko Erregea  
Dana bakigu,  
Angeruen aoti  
Aditu degu.

*B.*—Pastoreak, ea,  
Barrura sar zaitez,  
Jaio dan Jaun onekin  
Konsola zaitez.  
Eskatu zakio  
Doa askoren;  
Umildadeai eztaki  
Ezer ukatzen.

*Aritx.*—Adanen bekatua kausa izanik,  
Denbora luzean gabiltza itxurik.  
Desegindu beiz zeure argiak  
Gure biotzetako odei guztiak.  
Pobrero jaio zara, Jesus dulzea,  
Ediro ezin arren ostatu ohea.  
Portale ori itxita, zatoz geugana!  
Bakizu gure biotzok zeureak dirana.

Sale Atseginzoro y dice:

*Atseg.*—Milla barri on puntu onetan  
Aditu ditut etxean,  
Seiñ eder bat jaio jakula  
Abere biren artean.  
Neuk ere gura neuke ikusi  
Txikirritiko gurea.

Ugazabari artuta nator  
 Isilik lukainkea;  
 Trabaju asko kostatzen neurere  
 Egungo lapurretea.  
 Ez oi jaku sekula falta  
 Eskaratzean jentea.  
 Etxeko andra noblea dogu,  
 Bear bere ala nik,  
 Zerren bestela egongo nintzan  
 Oraingo enterradurik.  
 Gure andreak uste oi dau  
 Naizala mutil santua;  
 Etxok osorik ediroko  
 Lukainken kontua.  
 Kontatzen asi didin orduan,  
 Jarririk eskaratzean,  
 Ene kulpea jausiko da  
 Alabearen gañean.

Ofrecen dones los pastores.

*Gabr.*—Gutxiagaiti parkatu:  
 Borondatea bakusu.  
 Zure Seme Jaun orrendako  
 Esne gitxi bat dakargu.

*B.*—Atsegin artu egizu:  
 Borondatea bakusku;  
 Beronek borondate on ori  
 Pagatuko deutsu.

*Grac.*—Falta bajat saria,  
 Etxat falta naia;



Afari onek eruan deust  
Etxean neban gustia.  
Trabaju andi mortal bat,  
Andrea, opukadu jat;  
Mila golpe artuta nago,  
Guzti guztiak neuretzat.  
Beste marabilla bat  
Neuri suzedidu jat,  
Nundi ta nola eztakidala  
Neke guztia kendu jat.

*B.*—Ditxa guztia zeruti,  
Jaun onen eskuetati.  
Biotzerean emon bekioz  
Mila grazia beroni.

*Grac.*—Utsik banator, barkatu:  
Borondatea bakusu;  
Sekula beti izango naiz ni  
Onen da zure kriadu.

*B.*—Atsegin artu egizu:  
Borondatea bakusku;  
Beronek borondate on ori  
Pagatuko deutsu.

*Grac.*—Mesede eske nagozu,  
Ez, arren, orain ukatu;  
Jesusikori bear deutsat  
Billantziko bat kantadu:  
Adi, adi, adi, adi,  
Adi ezazuz berba bi:  
Azkonarraren atzamartxo  
Ekarriko dot menditi,

Begizkorik eztegizuen

Bulartxorean isegi.

Adi, adi:

Goizean bein nik ekarriko

Esnea zure amari,

Amatxok gero egingo deutsa

Aia semetxoari.

Adi, adi:

Ezer ekarri bear danean

Kriadu izango naiz ni,

Bearrak pozik egingo ditut,

Sein ederra, Zeugati.

Adi, adi,

adi ezazuz berba bi.

*S. J.*—Adanek ausi eban ezkeru

Jaunaren mandamentua,

Miseriazko halle onetan

Etxaku falta llantua.

Konberti bidi llantua gozo,

Konsola bidi mundua:

Guretaketzat jaio da Jesus,

Askoren deseada.

*B.*—Biur erazazuz orain geugana,

Jesusa, zure begiak:

Ona nun ofrezitzen deutsut

Munduko biotz guztiak.

*Aritx.*—Beste gauzarik eztozu gura

Ezpada borondatea;

Gura dozuna geugaz egizu,

Zaran ezkeru jabea.

*Gabr.*—Milla grazia emon bekioz  
Jaio dan infante oni;  
Ainbat fabore zelebratzeko,  
Dantza bat ordenau bidi!

Canta uno.

*Canción.*—Gaur dala gabon gaba,  
Gaur dala gabon,  
Gaur egiten jaku  
Jangoikoa gizon.  
Ots begi danbolinak,  
Lutua ken bidi,  
Fiesta degiogun  
Infante oni.  
Zerureanik dator  
Gure artera,  
Erratuai bidia  
Erakustera.  
Emaitera dator  
Milla barri on;  
Gaur egiten jaku  
Jangoikoa gizon.  
Ezta besteren eske;  
Biotzak bakarrik  
Beretzat gura ditu,  
Beste bagarik.  
Kunplidu egiozu  
Jaun oni naia;  
Beroni sal erozuz  
Biotz guztia,

Ordeaz Bera zeuri  
Dakizun emon;  
Gaur egiten jaku  
Jangoikoa gizon.

Los Reyes Magos.

Marabilla bat argitu jaku,  
Amabi egun danean,  
Besteak baño ederragoa,  
Izar bat Orientean.

*Pedro Ignazio de Barrutia*  
(Rubricado)

SOR LUISA

## GABON-SARIAK

EDO

AURTENGO GABONETAN AZKOITIKO  
ELEIZA NAGUSIAN KANTATUKO DIRAN  
GABON-KANTAK EDO OTSALDIAK

*Puer natus est nobis,  
venite adoremus.*

AZKOITIN MISERIKORDIAN  
MDCCLXII

Lenengo argitaraldia: "Gavon-sariac edo aurtengo gavonetan Azcoytico Eleiza Nagusian cantatuco ciran Gavon cantac edo otsaldiak. Puer natus est nobis, Venite adoremus. Azcoitia, 1762" (1).

Bigarren argitaraldia: "Euskal-Erria" errebista, XX, 1889.

Irugarren argitaraldia: "Egan", 1956, 5-6.

Laugarren argitaraldia: Auspoa Liburutegia, 48, 1965.

---

(1) Carmelo de Echegaray: "Bibliografia Euskara", "Euskal-Erria" errebista, XV.

**Azkoitiko Misericordiako  
Ama Birjina Soledadekoari.**

Andrea:

Zure mende gozoan bizitzeko zoriona degunok, zure mendean ta egapean ipiñi ere bear ditugu gure gauza guztiak. Argatik gaur argierazotzen degun papeltxo au, zure mendean ipintzen degu, ta ala artu ere bear dezu zuk; bada batetik gurea da, ta bestetik guk, gure onginaierak egiten dizkuen ongiteakgatik, eman nai diegun sari bat da: ta abek zure eskuetatik bialtzen dizkuen-azkero beren ongiteak ta ondasunak, esku orietatik biurtu ere nai diegu sari au. Ar zazu, bada, gure Ama gozoa, nai oi dezun ongiroarekiñ papeltxo au; eman egiozu zure grazia, ta adierazo egiezu gure ongiñ guziai gure borondate ona, ta eziñ beste moduz paga gintzakeala, ezpada arekin, ta zuri otoitzeak zure Seme Jaunagandik erdietsi dezazula aientzat guztientzat osasuna, bakea, ondasunak mundu onetan, zure umezurtxoetan gasta ditzaten, ta bestean seku-

lako bizitza; ala eskatzen dizu, Andrea, zure oñetan umilki auspez etziñik,  
Miserikordiako etxeak.

\* \* \*

**Luisa Miserikordiakoak ongiñ  
guzial gabon, urte on ta berri on.**

Nere biotzeko ongintxo maiteak: Igaroko urtean gabon-saria pranko eman badidazue ere, orra aurtan, aurea artuta, nu neuk ematen dizuedan: Ta nolakoa, ala ere? Zuek geienez gabon egiteko aza-buru bat, edo bakallao puska batekiñ askidatu ta kumpulitu dezue nerekiñ; baña nik zuentzat berriaz inprimierazo ditudan kantatxo edo otsaldi eder auekin erregalatzen zaituet.

Orañ zuek esango dezue zer apetek edo eroaldik eman didan onetarako. Ara bada, adi ezazue.

Igazko gabonetan ekusi nituan gure etxean makina bat gabon-kanta inprimitu: batzuek Bilbaokoak zirala, besteak Madrilgoak, Karizkoak, ta eztaikit nun añ urrutietako batzuek; ta adios nun berealaxe gogoak eman zidan: Zer! Beste iñun diran eleizak inprimierazotzen ditue, ateratzen dituen kantak, (azkenik Bilbaoko San Praxkuko Praille gajoetaraño), ta gure Azkoitiko eleiza ede-



rrean kantatzen diranak illunpean gelditu bear debe? Nundik nora? Ez debe beste erdera mordollozko abek ainbat merezi? Ez bada, Jainkoak nai badeu; ta datorren urtean, bizi banaiz, soñean daramadan gona au salduko badet ere, inprimitu bearko debe deamutxoetan. Orra bada, esan da egiñ, nun inprimierazo ditudan aurten gure Azkoitiko musika aingeruzkoak kantatuko dituan iru kanta-aldiak.

Jakiñ ere naiko dezue, norzaz baliatu naitzan koplak ta beren soñua ateratzeko, ta jakiñ-gura geiegitxo bada ere, ez dizuet ezer ixildu nai. Koplarik geienak nere burukoak dira; ta bost gaubela ta izerdi gozo kosta bazaitzit ere, ondo enpleatutzat ematen ditut diranak. Egia da (ez diot iñori ezer kendu nai), Martin beltz gizajoak, mesederik asko egiñik, lagun eginda batez ere, segidilla, ta arako *aria* edo *kopra andi* aetan, bada sekula alakorik nola ekusi ere ez neban, eziñ asmatu neban; ta ark berriz, nola iñunziak egiten ere dakian, asko daki, ta gizon jakintsu bat da. Soñua edo koplea ez da nerea; ez dakit orrenbeste; baña Probintzian diran maixurik pamatuena eragin diet. Melon antxiñako organista buapo ark, ta Lorentzo dantxariak, biak alkar arturik, atera debe.

Ala ere, ez dide kantatzen bentajarik eramango, ez batek eta ez besteak; ta ala, ikasi nai deban guztia, ez dauka nigana etortzea baño, ta nik berealaxe erakutsiko diot; bada eztarri garbi garbia ez badet ere, belarriak galantak ditut. Onenbesterekiñ, agur; bada kanpaeak badarauntza ia, gabon egitekoko, gure deiez.

## LENENGO OTSALDIA

### *Tonadillea*

Sekulako ikaraturik  
Nago ikusi dedanaz;  
Ez bait du iñork sinistuko  
Bakarrik nere esanaz.

*Bada ni ere  
Neure ikusirik,  
Egon naiz eziñ  
Sinisturik.*

Gure erriko sartzaieran  
Dagoan abel-etxe ura  
Aiñ dago argia ta ederra,  
Zer dirudi zerua.  
Baña au ez da ezer ere  
Beste gauzeen aldean.  
Ez da ainbeste mirari  
Ekusi iñoz lurrean.

*Bada ni ere...*

Aditu nai dituztenak  
Jar bitez nere aldean:  
Esango ditut diranak  
Segidillatxo auetan.

Baña utzi bulla  
Alde batera;  
Txit, txit, ia noa  
Abiatzera.

*Segtdillak*

Aurtxo zoragarri bat,  
Or portalean,  
Otzak kil, kil, kil, datza  
Lasto gañean.

*Ai, aur ederra!*

*Ai, aur guria!*

*Ai, aur gozoa!*

*Ai, aur eztia!*

Otzak kil, kil, kil. datza.  
Lasto gañean.  
Belen guztian  
Eztute inun aurkitu  
Ostaturikan.

*Ai, aur ederra!...*

Asto idi batzuek,  
Etziñik auspaz,  
Zerbait berotzen dute  
Beren arnasaz.

*Ai, aur ederra!...*

Errukiago  
Dira abereak berak  
Gizonak baño.

*Ai, aur ederra!...*

Txit emakume eder bat  
Alboan jarrita,  
Zoro biurturik dago  
Ari begira.

*Ai, aur ederra!...*

Bai, biak ere  
Ederrean alkarren  
Antza badebe.

*Ai, aur ederra!...*

Andre eder au aur onen  
Ama andre izanik,  
Jaio zanean bezela  
Dago, orregatik.

*Ai, aur ederra!...*

Zer miraria!  
Ama izanik, dontzella  
Bait da garbia.

*Ai, aur ederra!...*

Aur eder onen aita  
Ez da gizona;  
Da espiritu garbi bat,  
Da Jaungoikua.

*Ai, aur ederra!...*

Argatik bada,  
Mirari aiñ andi au  
Gertatu bait da.

*Ai, aur ederra!...*

Maiz ekusi dezute  
Kristal garbian,  
Nola sartu ta erten  
Oi dan argia,  
    *Ai, aur ederra!...*  
Ausirik gabe,  
Ta loirikan batere  
Utzirik gabe.  
    *Ai, aur ederra!...*

Gisa artan Andre onen  
Sabel garbian  
Sartu ta erten izan da  
Jainkoaren itza,  
    *Ai, aur ederra!...*  
Aren gisara  
Mantxa gabe ta osorik  
Gelditzen dala.  
    *Ai, aur ederra!...*

Aguretxo bat ere  
An dago aurtxoaz,  
Eziñ dauka negarra  
Pozaren pozaz.  
    *Ai, aur ederra!...*  
Iñoiz malkoak  
Oi dira farra baño  
Gozoagoak.  
    *Ai, aur ederra!...*

Jaunak esleiturik  
Bere ordekotzat,  
Aurrak aita ez badu ere,  
Dauka artakotzat.

*Ai, aur ederra!...*

Zorionekoa  
Izatea alako aurraren  
Aita ordekoa.

*Ai, aur ederra!...*

Beste gizakumerik  
Aurkitzen ez da,  
Aurtxo onen konpañia  
Eztitsu onetan.

*Ai, aur ederra!...*

Mundu zoroa!  
Ez du sekula jakiñ  
Zer dan gauza ona.

*Ai, aur ederra!...*

Bañan ez zaio palta,  
Ez, konpañia,  
Bada berekiñ dauka  
Zeru guzia.

*Ai, aur ederra!...*

Argatik naski  
Dabil mundua igasi  
Toki artatik.

*Ai, aur ederra!...*

Aingeruak kantatzen  
Diate aurrari:  
Gloria zeruetan  
Jaungoikoari,  
*Ai, aur ederra!...*

Eta bakea  
Gizon on guzientzat  
Berriz lurrean.  
*Ai, aur ederra!...*

Nai dutenak etorri,  
Betoz laxterka,  
Musika zeruko au  
Aditutzera,  
*Ai, aur ederra!...*

Ta aekiñ batera  
Gure borondate ona  
Erakustera.  
*Ai, aur ederra!...*

Goazen, ta bere ofietan  
Umilki etziñik,  
Alabatuko degu  
Biotz guzitik.  
*Ai, aur ederra!...*

Modu onetan  
Ez digu, ez, ukatuko,  
Deus ere ezertan.  
*Ai, aur ederra!...*



Eska zaiogun bada  
Lendabizian,  
Ez gaitzala, arren, utzi,  
Gere bizian.

*Ai, aur ederra!...*

Gurekin dela,  
Ez gera ezeren bildur,  
Naiz dena dela.

*Ai, aur ederra!...*

Orain aur maite onekif  
Ongi bagera,  
Gero eramango gaitu,  
Beraz batera,

*Ai, aur ederra!...*

Bere Aitagana,  
Sekulako bizitza  
